



## 1. Gogoetan

Atal honetan hausnarketa bideratu nahi dugu: egitasmoaren inguruan koka daitezkeen gogoeta teoriko zein praktikoak. Oraingo honetan, [Evelio Cabrejoren hitzak](#) hurbildu nahi dizkizuegu. Zain egotea, itxaropena, eta erritmoa loturik daude haurraren baitan. Ipuinetan, erritmo hau gauzatzen da behin eta berriz, espero denaren zain egotea, ezustekoa azaltzea... Zergatik sortzen ote dira ipuinak kultura guztietan?

Bularretik Mintzora egitasmoak bat egiten du Evelio Cabrejoren hainbat hausnarketekin. Gauza asko ikasi ditugu irakasle honekin, [Bilboko Alondegian](#) duela hiru urte eta geroztik ere bai haren idatziak aztertzen.

## 2. Egitasmoa martxan

Ikasturte berriari heldu diogu irailarekin batera. Bularretik Mintzora handitzen ari da, dagoeneko 12 herrietara iritsi gara. Zenbakiak dira honen lekuko eta zuen eskura jarri ditugu [taula](#) honetan.

Gainera, udal desberdinetatik deiak jaso ditugu egitasmoaren berri eskatuz, EAEn oihartzun handia hartzen ari dela agerian jartzen delarik.

Dagoeneko irakasleen prestakuntza saioak, hitzaldiak, irakurketa klubak... abiatu dira. Denen eskura dago ekintza guztien [agenda](#) gure webgunean.

## 3. Ebaluazioaren etengabeko bidea

Iaz pasa genituen galdekizunak komentatzeko unea iritsi da. Gurasoek azaltzen dizkiguten datuak jaso ditugu eta [txostena](#) prest dago.

Aldi berean, ikasturte honetako datuak, iazko datuekin [alderatu ditugu](#). Aldaketa baikorrak ikusten ditugu, hasierako erantzunekin konparatuz alor batzuk hobetu egin dira: liburutegietara gehiago joaten direla aitortzen dute gurasoek oraingo erantzunetan. Aldaketa kuantitatiboa da hau; baina kalitatean ere aldaketak antzematen ditugu: gurasoek aitortzen dute egunaren edozein momentutan aritzen direla liburuak kontatzen eta ikusten, eta ez bakarrik oherako orduan, adibidez.

Benetan irakurketa ohiturak sustatzearen bidean al gaude?

## 4. Ongi pasatzeko!

Ongi pasatzeko aukera handiak eskaintzen dizkigute metatzen diren ipuinek. Horra hor, tradizioan oinarritu dugun kontakizun polit bat. Metatzen den ekimen horretan, fantasia elikatzen da. Haurrentzat barregarria suertatzen dira aitona, eta bera laguntzeko elkartzen den koadrila. Haurrek parte hartu nahi dute ekimen zoro horretan, behin eta berriz errepikatzen delako, gero gertatuko denaren inguruko hipotesiak burutzen dituztelako, azkeneko sorpresara iritsi arte. Aipatuko al ditugu hizkuntzaren sintaxiaren kontuak? Hobe ez, [begiratu eta gozatu](#) Orixe Ikastolako haurrekin batera.